



Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Ez da zure nekea, kapitalismoa da

Ez dauka ez hanka ez buru oso nekatuta ego-teak eta, aldi berean, podcast bat entzuten beranduagora arte geratzeak loak hartu gabe. Baina horixe egin dut aste osoan zehar. Nire alde esan beharra dut Podemosen barne historiari buruzko podcasta zela eta irri maltzur batekin entzun dudala konpulsiboki gauero. Primeran pasa dut alderdi horretako militante ohien bilorik gabeko hitzak entzuten.

Izan ere, hasieratik jarraitu nuen haien bilakaera. Ikasle pisuan bizi ginenean, Pablo Iglesiasen La Tuerka ikusten genuen pozik, Espainian iritzi emaille interesgarriak ere ba-zeudela deskubrituz. Hauteskundeetara aurkeztu zirenean ere luze eztabaidatu genuen, ea nori egiten zioten kalte edota mesede, ea zer egon zitekeen haien asmoen atzean eta ea noraino iritsi ahalko zuten. Nola eraman zuten Euskal Herriko ezker subiranista espainiar gorteetako hauteskundeetan inoizko emaitzarik okerrenak lortzera eta nola irauli den hori urte gutxitan berriro.

Podemosen historia laburra (orain artekoa gutxienez) bereziki interesgarria da: Izquierda Unidarekin koalizioa, Errejonen kontraproposamena, txaletaren auzia, guber-nukide bihurtzea, Yolanda afera... Nire lagunek barre egiten didate Podemosen barne eztabaidak kanpotik jarraitu ondoren noren alde egingo nukeen esaten diedanean. Ez dizuet esango zuei, barra ertzean topatzen banauzue galdetu eta kontatuko dizuet. Luzerako joko luke, baina ez nuen horri buruz aritu nahi gaurkoan.

Arazoa da ohera joatera-koan ere zerbait kontsumitze-ko beharra sentitzen dugula: gogoko duzun podcastaren

azken zenbakia, Twitterreko txio berrienak, Instagramen gustatzen zaizunak estekatu duen azken bideoa... Gugandik at dagoen zerbait behar dugu gure burua asetzeko. Gero eta zailagoa da ohe ertzean duzun liburu hori bukatzea. Nire kasuan liburu kuadrilla osatu dute dagoeneko. Zin egiten diet oporrak hartu bezain laster nirekin eramango ditudala eta haietan murgilduko naizela, baina jada ez di-date sinisten.

Lanean ere badirudi lan egiteak berak baino, egiten dugu-nari edo egin beharko genukeenari buruz idazteak izugar-rrizko garrantzia duela nagusientzat. Berriro ere, gure bu-ruan edo lanean zentratu beharrean, beste norbaiten abaroan egon behar dugula dirudi. Etengabeko txostenak

betetzea gerorako uzteak ere ez du laguntzen. Hor non-bait, gure buruaren atzeko bazter batean geratzen baiti-ra zain, noiz beteko. Eta ho-rrek ere izugarri nekatzen du.

Sendagileek komentatzen dutenez, jende asko ari zaie kontsultara hurbiltzen nekea dela eta. Baina analisiak egin ondoren ez omen da ageri ezer berezirik. Nekeak egune-roko gauzak aurrera erama-tea zailtzen du, egin beharre-koak ahaztera eramaten du eta, oro har, den-dena zailago egiten du.

Ezin konta ahala aldiz go-gorarazi dit Amagoiak nire zutabearen zain dagoela eta hilabetero, idazteko gaiari buruz hausnartu orduko, ahaztu egiten dut. Horrexe-gatik eskertu nahi diot gaurkoa Gaur8-ri, hilabetez hilabete, arratsalde batez ordenagailu aurrean eseri eta nire buruan dudana orde-natu, horri forma eman eta lasai idazteko parada ematen baitit. Tartetxo batez, kapita-lismotik ihes egin ahal dugu-la sentiarazten baitit. •



Gugandik at dagoen zerbait behar dugu. GETTY